

Erref.- FMR / Legelari Aholkularia

**GAIA.- GERENTZIAREN BEHIN-BEHINEKO EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ XEDATZEN BAITA BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEA ATXIKITZEA FORU DEKRETU HONETAN JASOTAKO ZEHAZTAPENEI: 75/2023 FORU DEKRETUA, EKAINAREN 6KOA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN ARAU-URRATZEEI ETA INFORMATZAILEAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOAREN BARNE SISTEMA SORTU ETA ARAUTZEN DUENA.**

Gerente jn.:

2023ko otsailaren 21ean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen otsailaren 20ko 2/2023 Legea, arau-urratzeei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa. Arau hau Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauaren transposiziotik dator. Zuzentarau hori Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa da, eta Whistleblowing Zuzentaraua ere esaten zaio. Aipatutako otsailaren 20ko 2/2023 Legeak ezartzen du sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiak behartuta daudela barneko informazio-sistema bat izatera, lege horretan aurreikusitako baldintzetan.

Legearen helburua da lan- edo lanbide-testuinguru batean arau-hauste penal edo administratibo larriak edo oso larriak detektatzen dituzten eta legean araututako mekanismoen bidez komunikatzen dituzten pertsonak babestea.

Administrazio publikoen kasuan, zerbitzu publikoan interes orokorrak kudeatzeko, funtzio horretan parte hartzen duten pertsonen integritate- eta zintzotasun-estandar altuak bete behar dituzte, eta, horretarako, behar diren botereak eta baliabideak objektibotasunez, arauak betez eta eraginkortasunez eta efizientziaz erabili behar dituzte, interes publikoa interes pribatuen gainetik lehenetsiz, eta jardunbide irregularrak, etika gutxikoak, iruzurrezkoak eta ustelkeriak baztertuz. Esparru honetan interes orokorrak ahalik eta gehien zaindu behar direnez, beharrezkoa da helburu horretara bideratutako botereak eta baliabideak objektibotasunez, legearen arabera eta eraginkortasunez eta efizientziaz administratzea.

Erregulazio berri hori –zehaztu nahi dugu– gainjarri egiten zaie, hala ere, administrazio publikoei ustelkeriaren aurkako borrokan neurri zehatz eta eraginkorrak hartzea eskatzen dieten berariazko aurreikuspenak alde aurretik jaso dituzten gainerako eskumen-faseetako xedapenei.

Arau-egoera honetan, Bizkaiko Foru Aldundiak Informazioaren Barne Sistema onartu eta eratzen duen eta bere eskumen-ingurunean jasotako informazioak kudeatzeko prozedura onartzen duen Foru Dekretua onartu du.

Ondorioz, komenigarritzat jotzen da erregulazio hori Foru Erakunde honen eremu berezira eramatea, irismenari eta funtzionamendu-araubideari dagokienez, alde batera utzirik organo arduradunaren osaera eta haren ezarpen zehatzak behar dituen berezitasun guztiak.



Aurreko guztia kontuan hartuta, eta GUFEn estatutuak aldatzen dituen maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Batzordeari dagokio gai horretaz arduratzeko eskumena.

Aurrekoa gorabehera, ikusirik ezinezkoa dela organo horrek bilera bat egitea behar besteko aurrerapenez, erregulazio hori Foru Erakunde honen eremu partikularrera eraman ahal izateko, eta, hartara, bete egiten dela transkribatutako xedapenen indarraldia, beharrezkoa da dena delako gaia Gerentziaren bitartez bideratu eta ebaztea, halako moldez non, gero, Batzorde horrek baliozkotu ahal izango duen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 52. artikulua aurreikusitakoaren arabera. Horrela taxututako lege-araubide berezi horrek adierazten du baliozkotzeak data horretatik aurrera izango dituela ondorioak, eta baliozkotze hori organo eskudunak egin ahal izango duela instantzia-egintza eman zuenaren goragoko organoa denean.

Bere adostasunarekin, sinatzen duenak GUFeko gerentearen esku uzten du honako proposamen hau:

#### BEHIN-BEHINEKO EBAZPENA

**Lehenengoa:** Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea ekainaren 6ko 75/2023 Foru Dekretuan jasotako zehaztapenetara atxiki dadila xedatzea. Dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian arau-urratzeen berri emateko eta informatzaileak babesteko barne-sistema sortu eta arautzen da, ondoren adierazten diren salbuespenak salbuespen.

**Bigarrena:** Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen barneko informazio-sistemaren organo arduraduna (aurrerantzean, BISOA) administrazio-izaerako kide anitzeko organoa da, eta honako osaera hau izango du:

- Presidente titularra, Giza Baliabideen zuzendariordea, Alazne Rubio Terradillos and.
- Ordezko presidentea, Aukeraketa eta Hornikuntza Arloko burua, María José Larrinaga Artetxe and.
- Idazkari titularra, Legelari Aholkularia, Fidel Martínez Ruiz jn.
- Ordezko idazkaria, Kontratazio eta Ondarearen Arloko burua, María Yolanda Llama López and.
- Kide titularrak, Laneko Arriskuen Prebentzioko goi-mailako teknikaria eta Industria Antolaketako ingeniaria, Antón Dublang Arsuaga jn. eta Joseba Lekue Oleagordia jn.
- Ordezko kideak, Laneko Arriskuen Prebentzioko goi-mailako teknikaria eta Kalitate, Irudi eta Komunikazioko goi-mailako teknikaria, Verónica Atxutegi Vela and. eta Rosalía Duque Martínez and.

**Hirugarrena:** Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, eta haien izendapena adieraztea.



**Laugarrena:** RGSIIren arabera eskuduna den informatzailea babesteko agintaritzaren independenteari jakinaraztea aurreko atalean zerrendatutako BISOAko kideen izendapena; hori guztia, ebazpen hau eman eta hurrengo hamar egun balioduneko epean.

**Bosgarrena:** Gerente jauna berariaz gaitzea, aipatutako dekretua Foru Erakundearen esparruan behar bezala ezartzeak behar dituen gai guztiak ebazteko.

**Seigarrena:** Ebazpen hau Gobernu Batzordeari helaraztea, egiten duen hurrengo bilkuran, baliozkotzeko ondorio berezietarako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 52. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

**Zazpigarrena:** Ebazpen hau Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzari eta Giza Baliabideen Zuzendariordetzari jakinaraztea, bai halaber Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Intraneten eta Foru Erakundearen web orrian argitaratzea. Bete bedi.

Bilbon, a 2023ko ekainaren 12an  
ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARIA

Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón

EBAZPENA, 2023ko ekainaren 12koa, GUFeko gerente jaunarena.

Aurreko proposamena ikusita, oso-osorik onartzen da. Bete bedi.

Sin.: David Latxaga Ugartemendia